# MORFOSINTAXIA
## 93.11.18

**METAKETA**

**1. Zein emaitza nahi dugu?**

Printzipioz, emaitzarik zabalena, gerorako informazio gehiena utziko duena (sintaxia, semantika). Baina ez litzateke, horregatik, dena gordinik eman behar:

**a) ELIPSIA**

GEN + ASO: hauek bil daitezke, inongo informazio berririk ez baitigu ematen (bestela ere askotan nahasten dira -rekin/-kin). Azken kasuak ez du ez mugatasun- ez pluraltasun-markarik.

KAT: ELIPSIA, 0,... Kategoria bezala proposa daiteke.

Elipsia dagoen kasuetan (GEN + NOM) biak utzi beharko dira dauden bezala, bai kasu-marka, mugatasuna eta pluraltasuna.

Kasuak: elipsirik ez dagoenean, bildu.

```
  I Z E N A : umearentzat

((forma "umearentzat")
  ((anal 1)
   ((lema "ume")((KAT IZE)))
    ((morf "areM")((KAT DEK)(KAS GEN)(NUM S)(MUG M)))
    ((morf "tzat")((KAT DEK)(KAS DES))))
  ((anal 2)
   ((lema "ume")((KAT IZE)))
    ((morf "areM")((KAT DEK)(KAS GEN)(NUM S)(MUG M)))
    ((morf "tzat")((KAT DEK)(KAS PRO)(MUG MG))))
)
```

*Hemen bi analisi desberdin ditugu: lehenengoak (KAT DES)(NUM S)(MUG M) ematea nahikoa litzateke; ez, aldiz, bigarrenak: elipsia dago genitiboaren ondoren. Biak mantendu beharko lirateke, beraz.*

Mugatasuna: daudenak mantendu, elipsiaren seinale da eta. Ez dugu kasurik aurkitu bi mugatasun-marka genitiborik gabe (hau da, elipsirik gabe) daudenean.

Pluraltasuna: mugatasunarekin bat dator.

Sarrera: eztabaidagaien sarrera
• Azpipuntuak eta zeintzuk diren eztabaidagaiak
1. Lexikoien antolamendua
1.1. Kasu-marken banaketa
1.2. Numeroa eta mugatasuna

**Morfosintaxiaren inguruan eztabaidaturiko puntu nagusiak**

Segmentatzailetik analizatzaile morfologikora egin nahi den jauziak baldintzatzen ditu ondoren ikusiko ditugun zenbait punturen inguruan sortzen diren erabaki eztabaidagarriak. Hau da, deskribapen morfologiakoari dagokionean EDBLren diseinuan eskaintzen diren eremuen bidez osatzen da oinarrizko informazio morfologikoa, sintaktikoa, etab. Eremu hauei dagokien informazioa finkatzeko orduan izan diren eztabaidak areagotu egiten dira morfosintaxiari heltzerakoan. Esate baterako, izenei eskaintzen zaien eremuei erreparatzen badiegu, hara non *Plurala*-ren eremua agertzen zaigun, *(+,-)* balioak har ditzakeelarik (esan gabe doa tasun hau esanahiari dagokiola, hau da, mugatasun lexikalari). Demagun, *Donostia* hitzak + azaltzen duela eremu horretan eta ergatiboa itsasten diogula *(-k)*:

```
((forma "*donostia")
 ((anal 1)
  ((lema "*donostiA")((SAR Donostia)(KAT IZE)(AZP LIB) (PLURALA1 +)))
   ((morf "0")((SAR 0)(KAT DEK)(KAS ABS)(MUG MG)(FS1 @OBJ)(FS2
@SUBJ))))
)
```

Formalki morfologiari erreparatuz gero eta mugatasunari dagokionean, mugagabea dela esaten zaigu, baina, lexikalki mugatua dela esaten dugu. Kontua da hitzak bere baitan duen tasun hori *(PLURALA +)* eta deklinatzetik datorkiona *(MUG MG)* bil daitezkeen ala ez. Edo beste era batera esan nahi baldin badugu, zilegi ote da paradigma desberdinetako tasunak biltzea. Jakina, sintaxia lantzerakoan bi mugatasun hauek batean ez biltzea ez dirudi mesederako izango denik. Dena den arazoa orokorragoa dela esango genuke, analizatzaile morfologikoari segmentatzailetik datorkion informazio gordina landu beharra dago honen azpian, askotan gertatzen baita eremu berbererako balio desberdinak izatea. → Horrelako gorabeherak 4. puntuan ikusiko ditugu informazioaren bilketaz ariko garenean.

Ikus ditzagun banan-banan puntu eztabaidagarriok:
Ondoren garatuko ditugun puntu eztabaidagarriak, honako hauek dira:

**1. Kasu-marka eta mugatasunaren banaketa.**

Ikuspegi linguistiko hertsiz epaituz gero lexikoien antolakuntza, jatorrizko pekatu baten aurrean gaudela esan genezake, kasuak ez baitu mugatasunaren berririk ematen eta are gehiago beti ez delako irizpide berdina jarraitzen. Batzuetan kasu-markak jatorrago den legez kasuaren informazioa baino besterik ez dakar, hala ere badira kasuaz gain mugatasunaren berri ematen digutenak ere. Adibidez:

*aren* *GEN M S*
*a_0* *M S eta gatik MOT bakarrik*

Praktikotasunari begira dagoen dagoenean uztea erabaki da.

**2. Mugatasun lexikala.**

Mugatasun lexikalaren beharra morfosintaxiak azalarazi zigun, zenbait analisien emaitzak ez baitziren guk nahi genituen bezain osoak. Hala ere, arestian esan bezala, tasun hau hitzak bere baitan duen ezaugarri bat dela

---

[1]Orain ez du horrela ematen, eskuz propio sartua da (EDBL berriaren diseinuari jarraituz).